



225. zenbakia

URTARRILA 2023

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



NEGU HASIERAN

“ Badira gauak, eta zuk badakizu,
zeinetan gorputzak uzurtzen diren
izarek, mantek eta haien pean
ezkutaturiko azalek
bero nahikoa eskaintzen ez dutelako.

Luzeegiak diruditen ordu horietan
hatzen punta-puntatik desagertzen suma daiteke
eterno nahiko genukeen unearen testura.

”



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarte eta Eurne Gerendian Goñi.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Eltso herria, Ultzaman, Arañotz aldetik egindako argazkia. Egileak ez du bere izena jakitera eman nahi.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarrilaren 17an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Lehenago bertsolariak eskualdean*

07

Elkarritzeta. *Berueteko ostatua*

08

Albisteak.

13

Kronika. *Denok bat, Jubilatuen Elkarte*

14

Erreportajea. *Esan Erran irratiak, 25 urte*

18

Elkarritzeta. *Marino Goñi*

20

Aspaldiko kontuak. *Ihoteak gerra ondorean*

22

Ekimenak. *Iraizozko artzai-etxola*

23

Ardo Frexkoa. *Gaur, ardo frexko-frexkoa*

25

Kirola. *Sokatira*



26

Ingurumena. *Kurriloak*

28

Zer irakurri. *Once millones de ejemplares vendidos*

30

Jaiotzak eta heriotzak. *Azaroa*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bertsolaritza

Lehengo bertsolariak eskualdean

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia amaitu berritan, bertsolaritzaren sukarrak jota gaude asko, eta aukera hori aprobetxatu nahi izan dugu Ultzama alde zabal honetako bertsoaren historian zertxobait arakatzeko. Eman al du eskualdeak bertsolari handirik? Nortzuk ziren, eta zer utzi ziguten lehengo bertsolari horiek?

Historiak eman dituen gure eskualdeko lau bertsolari ezagutuko ditugu erreportajearen lehen zati honetan. Lehengo bertsolariei eman nahi izan diegu tokia, oraintsuagokoak ezagunago izanen zaizkigulakoan: Iraizozko Ekaitz Astiz, Berueteko Aitor

Arangoa, Oskozko Joana Ziganda, Anotzibarko Iñigo Ibarra, sutrai imoztarrak eta basaburuarrak dituzten Endika Legarra, Sahats Aleman eta Mintxo Astiz... horiek dira azken urteotan bertsotan aritu diren Ultzama aldeko zenbait izen.

Atzera begira jarrita, ordea, oparoa da gure eskualdeak eman dituen izenen zerrenda. Guztiak biltzea ezinezkoa da eta aukeraketa egin behar izan dugu, baina balio beza errepaso honek bertsolari gehiagoren oroimena bizirik mantentzeko.

JOSE MARI MUTUBERRIA ARTZE (Eltzaburu, 1905-1980)

Eltzaburuko Arotzeneko bordan jaio zen Mutuberrria, baina gazte zelarik Arraitza joan zen zurgintza lana ikastera, eta bertan hasi omen zen bertsotan. Bat-bateko bertsolaria zen, Ultzamako Bentako Anastasio Goñi izan omen zuen bertso lagun askotan. Elizondoko Euzko Etxeak antolatutako Nafarroako lehendabiziko Bertsolari Txapelketan parte hartu zuen Mutuberriak 1936an, eta txapeldunorde gelditu zen bertan. Gerra ondoren, 1960an, 1961ean, 1962an, 1963an eta 1964ean hartu zuen parte Nafarroako Txapelketan, eta 60an eta 64ean finalista suertatu zen. 1926an Almandozen bizitako gertaera bati jarri zion bere lehen bertso sorta, eta doinu ezagun bihurtu zen Almandoztik etorritako izenekoa. Urte mordoak bat beranduago, 2001ean, Oskorri taldeak

Ultzamako Bentako Diez de Ulzurrunengandik doinua jaso eta ezagun egin zuen, Mutuberriaren bertsoa Ultzamako basurdea izeneko abestian jasota.



QR
Mutuberriaren
bertsoak
irakurtzeko



Mutuberrria, Nafarroko txapelketan kantari



MARIJOAN IGOA AETZA (Eritzegoiti, 1800)

Informazio gutxi iritsi zaigu guganaino Eritzegoitiko (Atetz) emakumezko bertsolari honen inguruan. Xenpelar Dokumentazio Zentroaren datu basean jasotzen denez, 1800. urtean jaio zen Igoa, Eritzegoitin, nahiz eta bere jatorriarekin zalantzak ere egon izan diren. Izan ere, 1830ean, bere bizimodu tristearen inguruan "dozena bat zortziko" idatzi zituen, gerora Igela aldizkarian Mirandek eta Peillenek jaso zituztenak. Bertso horietan aipatzen du Eritze herria, baina Nafarroan



Bertsolari aldizkaria, Txakur Gorria ▲

bi Eritze daudenez, bietako zeinetakoa zen zalantzak izan zituzten adituek hasiera batean. Bertsoen amaieran data eta lekua zehaztu zituen Igoak, dena den, eta honela zion: "Ultzama-ko Ballean, azaroaren ogeiean Mila zortzireun ogei eta amarrean Aetzak igorrik". Kasik seguru izan genezake, beraz, Atezko Eritzegoiti herriaz ari zela Igoa. Nagusi zuen apaizak haurdun utzi eta sufritu behar izan zituenak kontatzen ditu bertso horietan.

I

Dozena bat zorziko
Marijoan Igoak.
Nere bizimodua
jakin dezan munduak
ondo esplikatzea
eman dit gogoak
laguntzen baldin badit
gure jaungoikoak.

II

Apez bat zerbitu dut
amalau urtean
jaun ta jabe egiñik
aren ondasunean
Señora bat bezala
jauntzirik soñean
pagu ona eman dit
orain atzenean.

III

Onela esan zidan
urtea bete gabe
"zure faltan nago ni
osasuna gabe."
Atoz nere oiara
pasatzera gaube.
Pozik agindu nion
erreparo gabe.

IV

Sazerdote batean
Ez dira kabitzen
burutikan galdua
ezpada arkitzen;
jarritzen giñanean
graziak ematen
gauza reserbatuak
zizkidan esaten.

V

Joan den abendoan
eguerri jaietan
nere lagunarekin
endemas gaubetan
gustora egon nintzan
plazer andietan
orduak jarri nintzan
loka arrotzetan.

VI

Bederatzi illabete
urbillen urrian
justo kunplitu ziran
ogei ta bostean
oñaze ta dolore
aundien artean
xita bat atera zen
ez ustekabean.

VII

Dama gazte batentzat
alako otsoa
aisa errenditu nau,
pikaro faltsoa.
Seme bat eragin dit
bere antzekoa
duda gabe eztuke
lendabizikoa.

VIII

Ojala baldin banintz
munduan bakarrik
onela bizitu dana
disimulaturik.
Lan egiña urriki
ezta probetxurik
ni emen gelditzen naiz
dena urraturik.

IX

Doktore medikuek
etzioten igarri
zer pasatzen zitzaion
nere sabelari
ordenatu zioten
milla bat edari
eskerrak zor dazkiot
txikirotelari.

X

Bizimodu polita
dago neretako
apeza ez dezaket
artu senartako
norbaitek nai banindu
bere andretako
makilla bizkarrean
etzaide faltako.

XI

Adios Erizeko
zarrak eta gazteak
nik iduki zaituzket
nasirik guztiak
ala agintzen zidan
nere nagusiak
oraiñ agertu dira
gure maliziak.

XII

Salve, Regina Mater
Miserikordia.
Anparatu nazazu
Birgina Maria
ongi konfesatzeko
indazu grazia
nere anima tristeak
badauka premia.



Bertsolaritza

ANJEL ALDAZ (Ihaben, 1914-1993)


Basaburuko postari ezaguna izan zen Anjel Aldaz bertsolaria, 22 urtez herri askotatik barna ibili baitzen gutunak bizikletaz banatzen. Ihabenen jaio zen, eta herria dezente erdaldundua zegoen garai hartan, baina oso gaztetxo zela, Itsasora joan zen artzain. Han hasi zen kantatzen eta bertsotarako zaletasuna hartzen. Ostatueta aritzen zen bertsotan maiz, baina jendaurrean, lehenbizikoz, Gartzarongo plazan kantatu omen zuen. Honela zioen Aldazek 1991eko maiatzeko Bertsolari aldizkarian Jon Maiak egindako elkarrizketan: "Ni Itsason artzai nindaielarik, mendian zerbait in bearta, kanturako afizio aundia izan dut, naiz kanpoan ta naiz elizako, ta asi nintzen bertsotan. Gartzaronen entzun nituen lenbiziko aldiz bertsolariak, eta ni ere plaza artan aritu nintzen

lehenengoz. Tabernetan ere bertso asko kantatzen nittun nik. Tabernan lau trago artu ta denak zien bertsolarik. Akaso ez dago ondo nik esatea, baina pixkat destakatzen nitzen ta geo ta afizio geio ta noiznai asten zien: bota bertso bat! Bota! Ta ola aitzen nintzen".



Anjel Aldazi
elkarrizketa
Bertsolari
aldizkarian. 1991

Urte mordoxka batean aritu zen Aldaz Nafarroako Txapelketan kantari: 1960an, 1961ean, 1962an, 1963an, 1964an eta 1966ean.



Bertsolari aldizkariko lehenbiziko alean, 1991ko maiatzean, Aldazi elkarrizketa egin zion Jon Maiak



Esku berean zazpi urtez

Josemi Pardo Encisok eta Susana Sanchez San Jose zazpi urte beteko dituzte, maiatzean, Berueteko ostatuan. Ez dira gutxi, landa eremuko herri txiki baterako. Honera etorri baino lehen ez zuten ezagutzen, baina, zailtasunak zailtasun, oso pozik jarraitzen dutela esan digu Pardok. Herritarrek ere, kontent, Basaburuko pintxo lehiaketan bozka gehien jaso baizituzten.

Ostatuan sartu eta atentzioa ematen duen lehenengo gauza, paretan, argazki markoetan, dituzten zapi kolekzioa da. Eta, hain zuzen ere, zapi berri bat, Larrion herrikoa, marko baten barruan jartzen harrapatu dugu Josemi Pardo Enciso: "Txaranga bateko kidean nintzen, nire jaioterrian, Radan, eta orduan herrietako pestetako zapi asko oparitzen zizkiguten, herriz herri joaten ginelako. Orduan hasi nintzen haiek gordetzen eta gerora okurritu zitzaidan markoetan ikusgai jartzearena. 83 zenbatu nituen aurreko egunean, hau, beraz, laurogeita laugarrena da". Guztiak Nafarroako herri ezberdin batekoa.

Inflazioarekin gastuak gora eta gora doazen honetan, geroz eta oztopo gehiago dituzte, zer esanik ez herri txikietakoek, non egoera berez zaila izaten den. Horrek kezkatu arren,

Pardok ez du ilusiorik ezta umorerik galtzen.

• Bizitza osoa daramazu ostalaritzan, ezta?

Bai, 14 urterekin hasiko nintzen. Tabernetako barran sartzen nintzen, musika jartzeko, eta, hortik, barran zaudela, bati kafe bat edo beste bati kubata bat jartzeko eskatzen dizute. Horrela ikusi nuen gustukoa nuela eta lanean hasi nintzen. Hasieran beste lan batzuekin uztartuz, asteburuetan ostalaritzan aritzen nintzen. Horrela 50 urte bete ditugu. Bost urtez taberna bat izan nuen Iruñean, utzi ondoren bizpahiru jatetxe garrantzitsuetan ere lan egin izan dut eta ondoren Berueteko ostatua hartu genuen duela zazpi urte. Hemen jarraitzen dugu eta iraun dadila.

• Berute ezagutzen al zenuten etorri aurretik?

Berute ez nuen ezagutzen. Lagun batek, kamioilaria, Berueteko neska batekin egiten zuen lan eta hark esan zion ostatua hartzeko prest egonen zen norbait ezagutzen ote zuen.

Eta Berute eta ostatua ikustera etorri ginen. Otsailean etorri ginen, sagardotegi garaian. Oso polita iruditu zitzaigun, bailara osoa, baina zalantzak genituen jendea etorriko ote zen. Lau asteburu etorri nintzen, jendea mugitzen zen ikusteko, eta autobusak pasatzen ikusten nituen etengabe, sagardotegietarako bidean. Harrituta gelditu nintzen ez baitzekien sagardotegirik zegoenik. Horrela, emazteari galdetu nion probatuko ote genuen, eta, baietz. Eta zazpi urte beteko ditugu maiatzean.

• Eta, ongi aritzen zarete, aurtan pintxo lehiaketa irabazi duzue...

Bai (barreak). Egia esanda nire emaztea da sukaldlean egoten dena eta oso ongi sukaldatu izan du beti. Aurretik inoiz ez du ostalaritzan lan egin eta esaten zidan gutxiendako sukaldatzeko gai zela baina ez 50 pertsonendako. Baina hasi zen eta lortu du, oso esku ona du.

• Pintxo lehiaketarako nola erabaki zenuten zer egin?

Buelta asko eman ondoren azkenareko egunean okurritu zitzaigun zer egin: zerri belarria, baina, tenpura egin eta pikillo piper saltsa batekin atera genuen. Bata mina eta bestea normala, bakoitzak nahiago zuena bota zedin. Eta, egia esanda, zerria zela ez zekienik ere bazegoen, eta oso goxoa iruditu zitzaion. Zerri belarria oso arriskutsua da, jende askori ez baitzaio gustatzen, baina arriskatu ginen eta irabazi.

“ Hemen
jarraitzen dugu eta
iraun dadila ”



▲ Esther Lakasta, Basaburuko alkatea; Susana Sanchez San Jose eta Josemi Pardo Enciso; eta, Marimar Ansorena, Basaburuko pintxo lehiaketaren antolatzaileetako bat.



iritzia



Onintza Enbeita

Berria

Gure gorputza

2022ko abenduak 27

Harrigarria da gorputzak noraino jarraitzen digun. Leher eginda dagoenean ere, gu goazen leku guztietara etortzen da, eta han irauten du. Aulkiren batetik zutitzerakoan, edo etxekoa ez den ohe batetik esnatzerakoan, edo garagardo estraren bat edaterakoan, edo eremu zaratsuetan loak hartzeko zorian zaudela, konturatzen zara dena ez dagoela ondo. Gorputzak tira egiten dizu edo zartadaren bat sentiarazten dizu edo lotarako ordua duzula esaten dizu. Kasurik egin ezta ere, ordea, lagun egiten dizu hurrengo egunean, eta hurrengoan, eta hurrengoan. Zenbat aldiz esaten dugun halakoa gertatuko balitzait hil egingo nintzateke, baina halakoak eta handiagoak gertatzen zaizkigu eta ez gara hiltzen. Geure buruari esaten diogu ezingo genukeela min handiegirik jasan, baina jasan egiten dugu; eta gure gorputzak oinez jarraitzen du.

Askotan pentsatzen dut neure gorputza dela jabetzan dagokidan gauza bakarra, eta, aldi berean, ardurapean ditudan gauzetatik gutxien zaintzen dudana. Ez dut uste ni naizenik horrela dabilen bakarra: gaitz hedatua da gorputzari ez entzutearena. Gaitz guztiak, psikologikoak eta fisikoak, artatzen ditugu iritsi eta gero, baina kasu batzuetan, denetan ez bada ere, batzuetan bai bederen, gureganaino irits daitezen saihestu egin dezakegu.

Eskualdeko hainbat ostatu eskuz aldatu da

Aizarozkoak urriaren 27an zabaldu zituen berriz ere ateak. Atarrabiatik etorri dira hura kudeatzeko.

Bestetik, Eltzaburuko ostatua hilabete inguru darama zabalik. Bere "jabe" berriak, Txujuk, aspaldi Leitzalarreako ostatua izan zuen. Ondoren, urteetan, villavesa gidaria izan da, orain, herriaren lasaitasunaren bila, ostalaritzara itzuli da.

Gainera, Iraizozko ostatuak ere ireki du berriz ere. Kasu honetan ez du guztiz eskuz aldatu, izan ere, Rominak hartu du (orain arte eraman dutenen familiakoa, eta ostatuan aritu dena orduan ere). Abenduaren 22an egin zuen mustutzea.

Igoakoa ere urtarrilean jarriko da martxan. Irurtzundik etorriko da bere kudeatzaile berria, baina jatorri argentinarra du. Laguntzeko Iruñekoa eta Itsasokoa den zerbitzaria izanen du.

Bukatzeko, Latasako biltegiak urriaren 30ean itxi zuten Baietz kooperatibako kideek utzita. Urtarrilaren 4an bukatu zen eskaerak egiteko epea. Bi eskaera aurkeztu dira baina baldintzak betetzen ez zituztenez berriz hasiko da prozesua.



Iraizozko ostatua



Zabalik da Euskarabenturan izena emateko epea

Uztailean zehar Euskal Herria oinez zeharkatzen duen ekimen euskalduna da EuskarAbentura. 2023ko espedizioa 2006 eta 2007an jaiotako gazteei zuzenduta dago, eta izen-emateko epea honezkero zabalik dago. Abenduaren 1etik martxoaren 3ra bitartean izanen dute interesa dutenek izena emateko aukera. Urtero bezala, izena ematearekin batera ondoko gaiei lotutako lanak aurkeztu beharko dituzte gazteek:

• **Turistak vs. Bidaiariak:** nola eta zertarako bidaiatzen dugu? Bidaiatzen duen pertsona ororekiko jarrera berdina al dugu? Zein ondorio dakartza masa turismoak?

• **Natura gizartean / Gizartea naturan:** nola txertatzen da natura gizartearen espazioetan? Ezagutzen ditugu inguruan bizi diren landare, animalia eta izaki bizidunak? Geratzen al da munduan gizakion eraginik jasan ez duen espaziorik?

• **Happykrazia:** norbanakoa al da bere zorientasunaren erantzule bakarra? Zer desiratzen dugu eta zergatik? Desiratzen dugun oro eskuragarria al da?



Euskarabentura 2022an Iruñetik pasatzen

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak....

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzerara eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.





Pilota goxoko txapelketa bukatuta, pala eta frontenis

Emakumeendako frontenis txapelketa eta gizonendako gomazko paleta txapelketa antolatuko du berriz ere Basaburuko eta Imozko kirol batzordeak. Lehenengoan maila bakarra izanen da eta paletan hiru maila. Izen ematea urtarrilaren 10ean bukatu zen.

31 bikotek eman dute izena, baina lesio batengatik batek baja eman du, beraz, momentuz 30 bikotek jokatu dute. Taldeak borobiltzeko ongi badator, bikoteren bat gehiago oraindik onartu liteke. Palako lehenengo mailan 9 bikote arituko dira; bigarren mailan, 10; hirugarren mailan, 5; eta, frontenisean, 6.

Bestetik, esan bezala, abenduaren 23an, arratsaldean, izan ziren pilota goxoko finalak. Lehenengo mailan Ander Arbilla eta Eloy García izan ziren garaile Miguel Javier Lazkoz eta Gurrearen kontra. 22 eta 17 irabazi zieten.

Bigarren mailan, berriz, Xabier Jaunarenak eta Xabier Aizpuruak jantzi zuten txapela Mikel eta Koldo Gelbentzuri 22 eta 12 irabazita.

Eta, bukatzeko, hirugarren mailan, Jon Patxi Okiñenak eta Peio Gorraizek osatutako bikoteak irabazi zuen, 22 eta 14, Ander Biurrarena eta Eñaut Urritzaren kontra.



Zorionak Zorionak!



Zorionak Joxe Mari!



Zorionak Aurity!



Zorionak Eha!



Zorionak, Ira!



Zorionak Ortzgi! (ezkerrean, ondoan
Amalur arreba zaharra du)



Zorionak, Ilargi!



Zorionak Mirentxu!



Zorionak, Inaki!



Zorionak Igancio eta Edurne aita-alaba!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Denok

Bat

Urtea amaitzeko, ekimen gehiago jubilatuen elkartean

Elkarteak beti bezain mugitua jarraitzen du urte amaieran. Udazkeneko mus txapelketa eta elkartearen abenduko festa eta omenaldia nabarmendu dira hilabete honetan. Almandozen egin zuten bazkaria. Datorren urtean agenda beteta etorriko dira berriz ere.

2022ko urtea bukatu aurretik egindakoaz arituko gara ale honetan. Udazkeneko mus txapelketaren azken eguna izan genuen abenduaren 9an. Jokalarien bazkariaren ondoren, azken partidak jokatu ziren eta sailkapenaren arabera sari banatzea izan genuen. Hirugarrenari eta bigarrenari elikadura poltsa bana egokitu zitzairen eta lehenengo bikoteari dagokion txapela eta urdaiazpiko bana.

Larraitzarko bentan egiten da txapelketa eta ostiralero biltzen da museko kuadrilla giro ederrean elkarren artean arratsalde zoragarriaz gozatzeko. Hurrengo udaberrian izanen da eta laister izena emateko epea zabalduko dugu.

Urteari bukaera emateko abenduan elkartearen festa antolatzen dugu. Bertan, urteko hildakoei omenaldia egiten diegu. Aurten, abenduaren

17an egin genuen, Iraizozko elizan, bertan hildakoen zerrenda irakurri ondoren, beren aldeko meza egin zen. Segidan urtean egindakoaren laburpena irakurri zuen lehendakariak eta jarraian autobusak hartu eta Almandozko Beola jatetxera abiatu ginen.

Han beti bezalako harrera ona egin ziguten, lehenengo solairu osoa guretzat eskeiniz. Bazkari bikainaren ondoren, eskualdeko





udalak emandako saskiak, gurekin genituen hainbat alkate eta zinegotzien bitartez, baita Gaston autobusarena eta Rural kutxako botil ardoa ere zozketatu genituen mahiara bildutako guzien artean. Hamaika sarituek berea jaso eta, ondoren, Jose Angel musikariarekin segitu genuen. Lehenengo kanta batzuk eta gero dantzaldia izan genituen.

Arratsaldeko 19:30ean berriz autobusera joan ginen, etxera itzultzeko. Egun ederra pasa genuen elkarrekin urteari amaiera emateko. Datorren urtea Arkupeak antolatutako bidaietara apuntatzeko orriarekin hasiko dugu, batzarra orokorra egin aurretik. Izanen duzue horren berri datorren alean.

Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuena Elkarte



Eskualdeko alkateak eta zinegotziak Beola jatetxean ▲



▲ Almandozko Beola jatetxean. Solairu osoa eskaini ziguten



Eskualdeko irratiak 25 urte beteko ditu aurten

1998ko abenduaren 20an entzun zen lehenengo aldiz Esan Erran irratiak. Horretarako, aurretik, hamarnaka herritar eta udal ordezkariak lan handia egin zuten. Bilerak, lizentzia eskatzeko tramitazioak, antena jartzeko auzolana, gauza asko behar baitziren. Baina lortu zen martxan jartzea. Orduko protagonista batzuekin hitz egin dugu.

Urteetako lana izan zen lehenengo emisio horretara iristeko. Gauza asko behar ziren: emititzeko lizentzia eta antena, besteak beste. Baina ilusio handia zegoen eta jende asko inguruan ere bai. Orduan eta behin martxan jarrita oztopoak izan dira -tartean 2012an dirulaguntzarik gabe utzi zuen UPNko gobernua eta emisioa gelditu zen denbora batez- baina bizirik jarraitu du eta 25 urte beteko ditu hasi berri dugun 2023 honetan.

Ilusio handia

Emititzeko lizentzia udalak eskatu behar zuen, eta, esan bezala, Ezker Abertzalea Basaburuko udaletxean sartzearekin aukera ikusi zen. Baina, talde politikotik aparte,

herritarrek osatutako batzorde bat sortu zen irratiak bultzatzeko. Xabi Azpiroz: "Euskararen inguruko eta komunikabidea bultzatzeko talde bat sortu zen eskualde mailan, batzorde bat. Batzorde horrek, talde politikotik aparte, irratia ekiteko lanei forma eman eta norabidea zein izan behar zuen erabaki zuen. Hor jende dexente sartu zen. Lizentzia Basaburuko udalak tramitatu zuen baina gero taldea herri dinamika batek eraman zuen, batzorde zabal batek".

Ondoren, 1996an sortutako Ametza Kultur Elkartearen inguruan batu zen jende hori, baita 1992an sortutako Pulunpe bultzatzeko ere. Dena aterki berean sartuko zen.

Teknikan ere, auzolana

Irratia martxan jartzeko, lizentziaz aparte, gauza gehiago behar ziren teknikoki. Bereziki, antena. Horretan lagundu zuen, beste gauzen artean, Ricardo Igoa Aspik: "Nik garai hartan elektrizista bezala egiten nuen lan eta lagun batzuekin egin genuen auzolan moduan. Txabola egiten badakit jende franko ibili zela, Anueko batzuk gidatu zuten hori, eta argindarra jartzeko nire lankideak ekarri nituen. Jendea oso ilusionatuta zegoen eta elkartzen ginen, jendea beti prest zegoen laguntzeko". Batek antena jartzeko terrenoa utzi, beste batzuek lanarekin. Bakoitzak ahal zuen neurrian eta arloan laguntzen zuen.

Teknikoki ez zen erronka txikia izan, dena den, eta hasieran arazoak ere izan zituzten. Iristen zen argindarra batzuetan ez zen nahikoa, batez ere bi sagardotegiak eta ikuilua martxan zeudenean. Eta emisioa askotan erortzen zen. Ricardo Igoa: "Ekaitza egiten bazuen, argindarra joaten zen eta hor Txari edo Fermintxo (orduko esatariak) igo behar ziren haraino, berriz martxan jartzeko. Lehendabiziko urteetan horrela izan zen, gero pixka bat hobetu zen eta momentu honetan badira tresna batzuk eta estabilizadore batzuk, horrela, erortzen denean 20 segundutara berriz saiatzen da abiatzen".

Teknikan bakarrik ez, Igoak irratsaio bat ere bazuen Arantxa Puignaurekin



Antena jartzeko auzolanaren argazkia Pulunpen



batera: "Musikaz hitz egiten genuen eta poemaren bat eramaten genuen, berri biziak ere kontatzen genituen. Nik oso gustora egiten nuen, urtebete inguru eginen genuen". Herritarrendako irekia izatea baitzen irratia zen helburuetako bat,

Xabi Azpiroz: "Ez bakarrik udalak sortuko zuen emisioa, baizik eta libre uztea jendeak edo nahi zuen taldeak emititzeko. Hori zen helburu nagusietako bat, irradi libre bat izatea". Helburua zen eta da, beraz, animatu zaitezte! Eta, tartean, adi

egon, 25. urteurrena ospatzeko gauzak etorriko baitira!



Txari Eletari Esan Erran irratiaren egindako elkarrizketa entzuteko

"SUSTO HANDIA HARTU NUEN IKUSI NUENEAN 24 URTE PASA DIRELA! NOLA PASATZEN DEN DENBORA!"

Aurretik aipatutako Fermin Gartxitorena eta Txari Eletari Esan Erran irratiaren lehenengo esatariak. Olaguekoa den Eletarekin hitz egin dugu.

• Gogoratzen al duzu lehenengo emisioa? Zer kontatu zenuten? Arazo teknikorik izan zenuten?

Nola ez gogoratu! Ez dut zehatz meatz gogoratzen zer arazo izan genuen baina izan genituela bai. Oso urduri geunden eta ahotza ez zen ongi sartzen, besteak ez zuen ongi entzuten, bolumen kontuak, ...

• Fermin Gartxitorenarekin batera hasi zineten, nola gogoratzen duzu Fermin? Gerora hitz egin duzue egun horretaz?

Fermintxorekin harremana mantentzen dugu. Orain ez hainbeste baina bada pertsona horietako bat elkartzen zarenean denbora ez dela pasatu ematen duela eta beti laguna izan dena. Elkartzen garenean nola izan ziren hasiera horiek gogoratzen dugu eta, batez ere, nola sortu zen ideia eta nola joaten ginen Iruritarra, Xorroxin irratiara, ikastera. Ez berak ez nik ez baikenuen inolako esperientziarik irratigintzan. Noizbait barrez lehertzea ere gertatu zitzaigun eta mikrofonoak jaitsi behar izatea. Hizkuntzarekin ere anekdotak izan ditugu. Hor euskara oso aberatsa da: Asko aldatzen da. Ni euskaldun berria naiz eta beldur nintzen ez ote nuen ulertuko eta hori behin baino gehiagotan gertatzen zitzaidan. Telefonoz deitu zonaldeko bati, hura hizketan hasi eta nik pentsatzea 'ez dut ezer ulertzen!' (barreak).

• Jendeak parte hartzen al zuen irratiari? Garai hartako Pulunpen ikusi baitugu irratiko telefono zenbakia handi handian jendeari parte hartzeko animatzen. Bazegoen ohiturarik?

Ez gehiegi. Batez ere hasieran jendeari kostatzen zaio. Ez zegoen ohitura hori. Iruritarra joan ginenean, Xorroxinera, hor jendeak deitzen zuen eta jarraitzen du deitzen... bazegoen egunero deitzen zuena ere, lehiaketan parte hartzeko, zoriontzeko, gauzak iragartzeko... irratia sorrararen zerbitzu hori eskaintzen baitzen, gaur egun ia sare sozialak eta internet dugu baina garai hartan gauzak iragarri eta erosten ziren irratia bidez. Guk hori ere martxan jarri nahi genuen baina zaila da, oso zaila da.



24. Pulunpen iragarri zuten Esan Erran irratiaren abian jarriko zela

• Pulunpen jartzen duenez Beruete Errosarioko Amaren irratiari Jose Manuel Lasarte apezari egin omen zenioten elkarrizketa, lehenengo saio horretan.

Ay egia da!! Bai, bai, gogoan dut.

• Aipatu dugu gaur egun internet eta sare sozialak ditugula, baina garai artan nola egiten zenuten irratigintza? Gainera, bi orduko irratsaioa egiten zenuten! Ez da makala!

Ez dakizue zer nolako lana egiten genuen, itzela! Fermintxo makina bat da. Ez dakit zenbat ordu ematen genituen eta ez genuen deskonektatzen. Badakizue, gaztea zara, kristoren ilusioarekin zaude, proiektua ilusio handia egiten dizu, eta berdin zaizu orduak eta orduak sartzea horretan. Ez dakit zenbateko lan jardunaldian geunden baino sartuko genuen bikoitza edo gehiago. Badakizue nolako den, ikusten duzula hau edo bestea, ez dakit nori galdetuko diot, eta besteari, eta kalean telefono zenbakiak hartzen! (barreak) beti horrela ibiltzen ginen. Gero jendeari deitu eta ezetzak jaso, alde batetik euskararengatik, jende asko lotsatzen zen uste zuelako bere euskara ez zela ona. Nik hori ezin nuen sinetsi! Ni euskaldun berria eta hemen hitz egiten diren euskalki politekin... Lotsa ematea normala da, jendearen aurrean, irrati, jendea konbentzitzea bazen lana.



Abenduaren 24a, Iraizotzen



Aimar Olentzerorekin, Atetzen



Olentzero eguna, Atetzen



Olentzero eguneko erronda, Berueten



Berueteko gaztetxoak errondan, abenduaren 24an



Alkozko herritarrek Olentzero egunean



Aizarozko neguko pestak, abenduaren 26an



Urtetxak Urritzolan



Suarbeko urtetxak



Atezko gaztetxoak Olentzeroren zain



Urtetxak Urritzolan

“Nafarroako rockaren memoria historikoa artxiboan bildu gabe zegoen, eta horretan ari gara orain”

Eguberri aurrean jakin genuen Marino Goñi ekoizleak bere fondo pertsonaleko dokumentuak dohaintzan eman dizkiola Nafarroako Artxiboari, hain zuzen musikaz eta arte eszenikoez arduratzen den artxiboari. 149 LP, rock musika taldeen maketa zaharrak eta estudioko grabaketak kaseteetan, disko zaharrak, Iruñeko rock eta okupazio mugimenduaren kartel eta dokumentuak... denetik dago. Egun Iruñean bizi bada ere, Erason eman du bere bizitzaren zati handi bat Goñik, eta bertan elkartu gara.

Beste ezer baino lehen, kontatu pixka bat nola izan den zure bizitzan zehar musikarekin izan duzun harremana. Noiz piztu zitzaizun musikarako interesa?

Bizitza osoan izan dut musikarekin harreman estua, txikitatik. Izan ere, familian zaletasun handia zegoen, eta eragin handia izan zuen nigan. Ez genekien musika irakurtzen, notak, solfeo eta horrelakoak, baina asko kantatzen genuen, gitarra jotzen genuen, aitak flauta ere bai... ohikoa zen hori. Beraz, esanen nuke ia jaio aurretik ere harreman hori izan nuela.

Zu ere musikari izan zara, beraz?

Bai, nerabezaroan talde batean hasi nintzen Burlatan, gitarra jotzen. Los intrepidok izena zuen taldeak, eta lehenengo haren ondoren beste batzuk etorri ziren. Bizitza osoa daramat talderen batean jotzen, baina zaletasun moduan beti, inoiz

ez profesional bezala. Kontraste handia ezagutu dut nik zentzu horretan: profesionalki ekoizle bezala arrakasta handia lortu nuen musikaren munduan, Hertzainak, Barricada eta horrelakoak grabatzen aritu ginelako, baina gero gure taldeak Erratzuko Zubipuntan jo zuenean 12 pertsona etortzen ziren gu ikustera!

Aipatu duzu ekoizle lanetan aritu zinela urte askoan. Noiz hasi zinen lan horretan, eta nola iritsi zinen produkzioaren mundura?

Irratian hasi nintzen lehenik, teknikari moduan, eta lan hori bukatu zenean justu Txantrean Soinua estudioa jarri zen

martxan, Iruñeko lehen esudio profesionala. Kuina publizitarioak egiteko norbait behar zutela eta, horrela hasi nintzen. Gerora, nire kabuz rock talde batzuen maketak grabatzen hasi nintzen estudio horretan bertan. Ez zegoen horretarako prestatua, baina saltseazen, lortu nuen maketa xume batzuk grabatzea. Gerora profesionalizatu ginen pixka bat eta diska batzuk grabatzea lortu nuen: akordeoia, jotak... Eta gerora, pixkanaka, grabaketatik produkzioa pasatzea ondorio moduko bat izan zen, bide naturala. Grabaketa aurreko prestakuntza oso garrantzitsua da, eta hori ekoizpena da. Horrela hasi nintzen.

LPak, grabaketa zaharrak, kaseteak, aldizkari eta fanzineak eta beste hainbat dokumentu daude Goñiren bilduman



Marino Goñi, Eraso etxe atarian ▲



Dohaintzan emandako karteletako bat ▼

GOR disketxea ere zuek sortu zenuten, ezta? Nola gogoratzen duzu garai hura?

Tira, hori baino lehen Soinua disketxea sortu zen, eta hor grabatu genuen lehen talde ospetsua, Barricada. Gero etorri ziren La Polla Records, Kortatu, Cicatriz, Hertzainak, Potato, Tijuana in Blue, Delirium Tremens... garaiko talde mitiko guztiak. Gero, Soinua desagertu egin zen, bazkideak banandu egin ginen eta Elkar taldearekin batera Oihuka disketxea sortu genuen. Hor grabatu genituen Jotakie, Belladona... tira, ni beti anaiekin aritu izan naiz, Antonio eta Patxirekin, eta 1991n erabaki genuen gure kabuz, gure diruarekin Gor disketxea sortzea. Hor etorri ziren Parabellum, Balerdi Balerdi, Julio Kageta, Exkixu, Urtz, Kojon Prieto y los Huajalotes, Marea, Berri Txarrak, Ken 7, Skalariak... jendeak galdetzen zidan: "zergatik ez duzu Euskal Herritik kanpo grabatzen?". Eta nik erantzuten nien: "Jo, ezin dut! Gustatzen zaidana hemen dago eta!"

Eta musika bildumak egiteko zaletasuna txikitatik datorkizu?

Bai, tira, edozein bilduma egiteko zaletasuna txikitatik zetorkidan: ziklisten kromoak, pelikuletakoak, plastikozko indioen figuratxoak... denetik! Eta musika bildumekin nerabezaroan hasi nintzen, anaiekin eta lagunekin batera. Hor Los Beattles eta horrelako taldeak sortu ziren, pop musikarekin kontaktua izan genuen eta liluratuta egon ginen. Horiekin hasi ginen.

Irrati esatari ere aritu izan zara...

Bai, bai, hori ere egin izan dugu. Madrilén hasi nintzen Radio Popularren, gero Iruñera etorri nintzen irrati berean teknikari moduan aritzeko. Bertan eskatu nuen rock saio bat egiteko, eta horrela sortu zen Más o menos rock



saioa, arrakasta handia izan zuena. Garai hartan Drogasek Cafarnaun taldean jotzen zuen, hor agertu zen Tension taldea ere, Iruñerriko lehen punk taldea, 1978 inguruan... lortu genuen giro ona eta antolatu genituen zenbait festival ere. Gerora, irratia utzi nuen, baina Iruñerriko lehendabiziko irrati librea sortu zen, Radio Paraíso. Hor sartu nintzne eta urte pare batez rock-aren inguruko saio bat izan nuen. Ondoren, Eguzki Irratia sortu zen, eta horrek kutsu politiko handiagoa zuen, kolektiboek parte hartzen zuten... eta hor ere aritu nintzen. Baina 1987an herrira, Erasora etortzea erabaki genuen eta irratia utzi nuen. Azken esperientzia irratan duela urte pare bat izan nuen, Euskalerrria irratan, kolaborazio batzuk egiten nituen.

Tira, eta gaurko gai nagusira pasaz... nola bururatu zitzaizun zure fondo pertsonala Nafarroako Artxiboari dohaintzan ematea? Zer material dago fondo horretan?

Duela ez asko Arrosadiako lagun batekin egin nuen topo, eta hark esan zidan pegatina eta pin bilduma bat Artxiboan uztetik zetorrela. Artxibo Kontenporaneoan material mota desberdinak jasotzen zituztela jakin nuen, normalean paperean dauden material historikoak. Nik 2015ean Cortate

“Izen handiko taldeak grabatzen genituen gure estudioetan: Barricada, Kortatu, La Polla Records, Cicatriz...”

el pelo dokumentala egin nuen, eta pentsatu nuen grabaketa guztiak eramatea, nik disko gogorrean edukita ere horiek galtzeko arriskua bazegoelako. Artxibora joan, eta han esan zidaten Musikaren eta Arte Eszenikoen artxibora jotzeko. Joan nintzen hara, eta topatu nituen orkestra zuzendarien artxiboak, konpositoreak, antzerkigintzako antzezlanak... baina nire haridurarako, ez zegoen rock-ik. Han-hemen jasoan neukan materialaz hitz egin nien, eta esan zidaten dena eramateko. Duela urtebete hasi nintzen materiala eramaten: kaseteak, LPak, estudioko grabaketa zaharrak, kontzertuetako eta mugimenduen kartelak... denetik. Azkenean, belaunaldiz belaunaldi gauzak ahazten joaten dira, eta nik uste nuen material guzti hori ongi sailkatzea eta gordetzea garrantzitsua zela. Artxiboa gordeta hori bermatuta dago.

Edonorentzat eskuragarri egonen dira gero material horiek guztiak?

Bai, oraindik ez dago irekita osatzen ari direlako, baina datorren urtean edo dena aterako da, ongi sailkatuta eta prestatuta. Grabaketak eta soinu dokumentuak ezingo dira artxibotik atera, han bertan entzuteko aukera egonen da. Kartelak, aldizkariak, fanzineak eta horiek guztiak etorkizunean libreak izanen dira, sareetan eta. Ez da itxian gelditzen den zerbait, edonork entzun edo kontsultatu nahi badu hortxe egonen da materiala.



Ihoteak

gerra ondorean

Igoako ihoteak (2)

Aurreko batean kontatu genuen nola izaten ziren ihoteak gerra aurrean. Batez ere Igoako ihoteez aritu ginen. Gaurkoan ere Igoako ihoteez arituko gara, ez baita beste herririk izanen hemen bezain luze eta sendo iraun dutenik.

Gerra bukatu eta noiz hasi ziren ihoteak? 1945. urtean Igoan bai, gutxienez. Eta beste herri batzuetan ere bai, horrelatsu. Baina herri gehienetan ez zen besta hau berritu, behin geldituz gero gauzak horrela izaten dira. Gauzak berritatik hastea neke da.

Gerra aurrean bezalatsu

Gerra aurrean bezalatsu hasi ziren ihoteak. Hiru eguneko ihoteak izaten ziren. Eta otorduak, gehienbat, errondan etxez etxe biltzen zenarekin egiten ziren. Soinu jotzailea izaten zuten, baina errondan mutil nagusia eta mutil-laguna joaten ziren eta besteren bat, akordionistarekin batera.

Ihoteak **Herrikoetxean** egiten zituzten.

Horrela, ihote atsaldeetan dantza jartzen omen zuten **Arraldean**, eta neskato gaxteei uzten ez sartzea. Jakina, hauek haserre, debekatuak ziren ihoteak adinekoendako libre,

eta 12 urteko neskato jakin minez zirenentzat dantza lekura sartzea ere uzten ez? Ez zegon deretxorik!!! Mutil batzuk txatxututa ibiltzen ziren makil luze batzuekin mutiko eta neskato guzien atzetik, beldurtu ttikienak, jostatu zahartxeagoak, ikuskizuna jarritz.

Neskatxak ihoteetan

Ihote erdialdeko egun batean neskatchei ere berendua ematen zieten mutilak. Sala beterik izaten baitzen, beste gela batean ematen zitzaaien bendu ikaragarri bat. Haiekin batean mutil-nagusia eta mutil-lagunak bendatzen zuten.

Eta egun horretan, jendea ederkirgirotu ondoren, dantza izaten zen, dantza harrigarriki alaia eta parte hartzailea.

Aldaketa handiak

Mutil asko izaten zen garai hartan, 40 bat mutil biltzen zen ihoteetan. Eta 1960an edo aurrettoan

Frantziako oihanetara joaten hasi ziren lanera, hemengo soldatekin konparatuz askoz hobeak baitziren han. Hori dela eta, aldaketa handiak hasi ziren ihoteetan ere. Hasteko, data aldatu behar izan zen eta **Errege ondorettoan hasi** ziren ihoteak egiten, 15 bat egunetara, ondorean Frantziara joan behar izaten baitzen.

Eta diru gehiago irabaztearekin, otorduak ere asko aldatu ziren. Eta **puska biltzea** bukatu zen, otordu hobeak nahi jendeak eta txekorra hiltzen hasi ziren 1965. urtean edo. Txekorra hiltzera Suarbeko **Artxe** etortzen zen ihoteak hasi baino pare bat edo hiru egun lehenago. Pentsa, geroago, zekorkiaz gain, legatza eta angulak ere ez ziren faltatzen.

Dantza lotua ere 1960. urtean edo hasiko zen, ordura artio debekatua baitzegoen, baina hau ez zen etorri haserre eta iskanbilarik gabe.



◀ **Ezkerreko lerroan, behetik gora:** Joxepen Axentxio, Joxepen bordako Josetxo, eta atzean Karakoetxeako Joakin Mari.

Hurrengo lerroan: Leontxito, Karakoetxeako soinu jotzailea, 17 urterekin. Eta bere atzean, Tomax, Joxepen bordakoa eta Salbadarren bordako Mieliko. Eta azkeneko lerroan: Eduardo (Karakotxeakoa) eta Otsanbelan bordako Mattin.

Eta nahi duenak hobeki aztertu, ea nor diren hor ageri diren muttiko eta nextato horiek.



▲ Hemen dugu Mattin Lasarte, denen buru. Pañolo gorriz, kapitan bezala, eta artzain bezala, berriz, zakurra bere gerriari lotzen ari zaizkie. Makil sendoa darama eskutan, artaldean errespetua jartzeko. Soinu jotzailea, Lesakako Xalbador. Aldamenetik, operazioa baimentzen, Martiñen bordako Jesus Mari Lasarte. Gainerakoak denon ezagunak dira, aise antz emanen diezue.

IHOTEETAKO GERTAERA BITXIAK

Ihoteak jartzen zuten esatekoa. Beti izaten zen bakarren baten aldrebeskeriaren bat. Edo hau zela eta bestea zela, protagonistarik ez zen faltatzen horrelako mutil sailean.

Ihoteetan parte hartutako igoar batek hala kontatu zigun behin batean:

Mahai ttikian traketsenak

Etxezarrean (1960-1976) egiten zituztenean ihoteak, bi mahi izaten omen ziren, bat handia eta bestea ttikia. Honetan mutil traketsenak jartzen omen ziren, **Irazabalgo Miguel**, **Otsanbelako bordako** pareen bat, **Joxepeneko bordako** Juan Jose, **Herrikoetxeko** Axentxio eta horrela.

Eta otordu aldioro, bukatzean edo, mahaiari buelta eman eta hankaz gora jartzen zuten. Eta mutilak jarrita edo zutik, baina mahaia hankaz gora edukitzen zuten. Hori egin behar beren trakeskeriaren hondarra bezala edo.

-Hori bai, Pedro Miguel, etxeko nagusia agertzen ez bazen. Bekozkoa jartzen zuenean, errespetua zitzaion Pedro Migueli gero! –Hala esan zigun ia hitzez hitz beste igoar batek.

Bortzegiak zopan.

Behin, **Etxezarrean**, lurreko suan eltze zopa handi bat irakiten omen zeukaten. **Joxepeneko bordako** Juan Jose su ondora hurbildu berotzeko asmoz eta hankak eltzearen estalkiaren gainean jarri eta estalkia irauli eta zangoak barna.

Sustoa alimalekoa, botak eta zapinak kendu omen zizkioten eta ur hotza eta beste igurtzigai batzuk eman (olio eta ozpina?) eta ez omen zuen deus izan. Eskerrak!!!

Hori bai, zopa bota eta, berriz, haste hastetik hasi behar. Hori zen gutxiena!!!



Tx

Txatxutuen kontua ere bukatu zen urte honetarako.

Eta hiru egunekoak izatetik luzatuz joan ziren eta urte batzuez 9 egunekoak izan ziren, ostiralarekin hasi eta hurrengo asteko igandera artio, bederatzi egun, atertu gabe. Bederatzi egun alajaina!

Dantza, lehen urtetan **Arralden** izaten zen, gero **Arraldeko Oilategian**, ondoren **Salbadorren etxetxoan** eta azken urteetan **Herrikoetxean**.

Gaurko egunean.

Aspaldi bukatu ziren mutilen, batez ere, mutilen ihoteak zirenak. Joan den urteetan, 20 urte baino gehiago agian, ezkongabeak eta ezkonduak, gizaki eta emakumeak, denak batean egiten dituzte.

Ihote egunak ere laburtu dira, orain lgoan ilbeltzaren azkeneko asteburuan egiten dira, bi egunez, ostiral eta larunbatarekin. Eta kito. Tokitan daude bederatzi eguneko ihote haiek!!!

Eta lgoan bezalatsu, Gartzaron, Beruete eta Itsason ere ihoteak aldatu dira eta berdintsu egiten dira.



Txurdan

Hiztegia

Ilbeltza=Urtarrila

Harrigarriki: sorprendentementente

Antzinako=Lehenagoko

Bekozko=Kopeta iluna

(Bekoki=Kopeta)

Estalkia: tapa (Hemengo hitza ere bada)

Zapina: ez dakienak galde diezaiola aitari edo amari.



Artzai etxola bat zaharberritu dute Iraizotzen

Gurbil mendian zegoen, erortzeko. Herritar multzo bat bildu da zaharberritzeko, urteetan zutik mantendu dadila, eta, berarekin, herriko historiaren puska bat ere bizirik mantentzeko.

1000 kilo area, 25 zaku zemento eta ur deposito bat. Hori guztia behar izan dute Gurbilen ia erorita zegoen artzai etxola konpontzeko. Hori eta herritarren eskuak, noski, hori batez ere. Fernando, Txaro, Titi, Kiribi, Martintxo, Isa, Ritxar, Joakin, Kontxi, Goio, Braban, Txarli, Piter, Mari, Kutxi eta Pako. Hori da pasatu diguten langileen zerrenda. Zazpi larunbat goiz aritu dira lanean, herriaren historiaren puska garrantzitsutzat baitute artzai etxola.

Ritxar Etxandi Serranorekin izan gara, Iraizotzeko herritarra eta bultzatzaileetako bat: "Herrian guztiok pentsatzen genuen hori konpontzea garrantzitsua zela. Hurrengo belaunaldiek ere ikusi dezaten, argazkiak atera ditzaten, historia puska hori mantentzeko, bestela guztiak desagertuko dira".

Herriko ekimena

Ritxar Etxandi Serrano izan zen bultzatzaileetako bat: "Hura gurea zen, baina partzela kontzentrazioarekin, duela 30 urte, zati hori utzi eta beste zelai bat hartu genuen. Orduan hori herriarendako utzi genuen, borda, zelaia eta artzai etxola. Orain ez da gurea baina sentimendu hori mantentzen da, gure artzai etxola dela sentitzen dugu. Izan ere, gure etxea Artzaia da, Maizkornea da bere benetako izena, baina beti esaten zitzaion artzaia, artzai batek erosi baitzuen bere garaian".

Baina, aipatu bezala, herriak artzai etxola konpontzea garrantzitsua ikusten zuen eta, horregatik, herritarrak asko inplikatu ziren

modubatean edo bestean: "Materiala biltzeko, badakizu nola izaten den: nire koñatua igeltseroa da, eta bere nagusia herrikoa da, oso jatorra, Fernando, eta berari eskatu nion laguntza. Tresnak ere denetarik utzi gintuzten. Gero erosi genituen gauza batzuk, hasieran ni hasi nintzen erosten". Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiete Construcciones Arañoz eta Metálicas Tuferritari.

25 zaku zemento

Pixka bat txukundu eta, hobeki mantendu zedin, indartzeko asmoa besterik ez zuten hasieran. Baina, azkenean, lan ederra egin dute: "Hasieran nire asmoa pixka bat txukuntzea zen. Hormak nahiko ongi baitzituen. Hain txikia denez, eta, pentsa, 60 zentimetroko zabalerako hormak dituenez, oso sendoa da. Baina teilatuko egurra ustelduta zegoen, oso gaizki zegoen zentzu horretan. Hala ere urte asko iraun ditu. Azkenean poliki-poliki konpontzen hasi ginen eta azkenean barruraino sartu ginen. Hiru horma

izan ezik beste guztia dena berria egin dugu. Teilatua, dena rebokatu, pareta bat. Ez nuen pentsatzen hainbeste zemento behar zenik. Kristoren lana izan zen. Orain egin dugun moduan betirako iraungo du. Teilak jarri ditugun moduan ez dira mugituko".

Badira aurretik beste batzuek konpondutako etxolak ere, Grexeneko edo Arizenako bordakoak, esate baterako. Horregatik, daudenak konpontzea edo txukuntzea interesgarria iruditzen zaio: "Interesgarria iruditzen zait beste herrietan ere animatzen diren beste batzuk konpontzen. Ni prest nago laguntzeko, zalantzarik gabe. Baina laguntzeko eh, ez baita gauza bera laguntzea edo antolatzen hastea (barreak)".

“ Helburua, historia puska hori mantentzea da ”



Artzai-etxola konpondu aurretik eta ondoren ▲



Eskerrak ematea ere beharrezkoa da.

Esker onekoa izan behar da, baina askotan ez gara hala izaten. Ez gara ohartu ere egiten baten batek momentu txar batean eskutik heltzen digunean, mesede bat ia-ia oharkabea egiten digunean norbaitek ... ez dugu behar-ordu batean guregana hurbiltzen denaren begirada amultsua ia estimatzen. Asko eta asko soraio samarrak garenik ezin uka. Gure eginbeharretan murgildurik eta despistaturik ibiltzen gara.

Mesede egilez at, badira pertsona eskuzabalagoak ere. Badira herrietan zenbait lan musu-truk egiten dituzten pertsonak. Eta nago zenbaitendako karreteran auto bat pasatzen ikustea bezala dela. Paisaiaren parte bezala dira.

Eta hauetako bat nahi nuke gaur Pulunpetik eskertu, urtetan elizako zenbait lanetan aritu den Isabel Igeltz Azpirotz, Etxalekuko **Mikeleneko** etxekoandrea. Zenbait lanetan esan dut eta bat azpimarratzekotan, atsaldero-atsaldero arrosarioa ematen pasa dituen urteak ditut gogoan.

Askotan eta askotan izanen zituen konpromisoak, baina egunero-egunero, ia-ia hutsik egin gabe, hor izanen genuen ezkilak jo eta arrosarioa emateko prest, gainerako guziak utzita.

Jende jubilatueendako eta batez ere elizkoiendako laguntza handia izan da. Eta aukera ederra momentu bat elkar ikusteko, hitz batzuk trukatzeko, jardukitzeko eta herria egiteko. Herri egitea, zein inportantea den!

Honi guzi honi beste gehigarri bat erantsi nahi nioke: euskaraz egin izan dituela elizkizun guziak, arrosario eta bederatziurrenak.

Euskaltzaleon partez ere gure eskerrik beroenak bidali nahi dizkizut, Isabel. Arrosario horiek euskarari eusteko ere balio izan dute eta gure hizkuntza horrelakoen beharretan da.

Eta euskararen bidetik segituz, ez ditut atzenduak zuk erakutsi eta nik gogoan hartu eta erabiltzen ditudan hitzak eta esaldiak: **Indure, burkanda, jarduki...**

Ardo frexko-frexkoarekin gabiltza gaur, ardo mingots, ozpindu eta pikatu guziez atzendurik. Horrela beharko genuke beti, Euskaraldia izan edo ez izan. Guk gure aldetik ahal dugun guzia eginen dugu aldizkari ttiki honetatik.



Txurdan

Hiztegia

Amultsua: cariñoso, amoroso.

Soraioa: indolente, insensible

Murgildu: sumergirse

Eskuzabala: generoso

Jarduki=iharduki: Gaien batez edo arazo batez luze xamar hitz egin.

Bederatziurrenak: novenarios

Esaldiak eta lokuzioak

Musu-truk: debalde



▲ Isabel Igeltz Azpirotz, Etxalekuko elizako aldarean irakurtzen, xalo-xalo.



Mendeetan bizirik

Nafarroan talde gutxi dira eta guztiok ezagutzen dute elkar. Baina, sokatira oraindik bizirik da. Amaiurko taldean dira Auzan bizi diren Lander Landiribiar eta Amaia Iribarren. Landiribarrek Amaiurkoa du ama eta Urritzolakoa, aita. Auzakoa da Iribarren. Lehenengoak hamarkada bat darama sokatiran, eta ia-ia hasi berria da bigarrenkoa. Teknika dirudiena baino konplexuagoa den kirol honetan, biok ados, giroa da hoberena.

Mendeetan bizirik dirau sokatirak eta ez bakarrik Euskal Herrian. Interneten arakatzuz gero, jatorri errituala omen duen ariketa hori munduko herrialde askotan eta kultur ezberdinetan ibili izan da. Grezian ere aritzen ohi ziren, horregatik, beharbada, ez da kasualitatea 1900 eta 1920 artean Joku Olinpikoetan ere onartu izana. Gerora, lau urtean behin antolatzen den txapelketa horretan erakustaldi gisa bakarrik antolatu izan da. Bi urtean behin, hala ere, mundiala izaten da. TWIF da sokatiraren munduko federazioa.

Euskal Herrian talde ugari eta hainbat txapelketa dira. Nafarroan, orain, sei talde dira osotara: Berriozar, Antsoain, Txantrea, Beti Gazte, Amaiur eta, nesketan, gainera, Araxes (Araitz-Betelukoak).

Hoberena, giroa

Beraz, Nafarroan, bospasei talde dira. Ez dira asko, baina oso giro ona izaten dute haien artean. Amaia Iribarren: "Txapelketetan oso gustura nabil. Lehiakortasuna badago, baina gero denak elkarrekin oso gustura egoten gara", Lander Landiribar: "Azkenean, denok ezagutzen dugu elkar. Jende gutxik praktikatzen duen kirola da baina oso giro ona sortzen da. Taldeen artean ere harreman oso ona egiten da".

Lander Landiribarrek hamarkada bat darama sokatiran, gutxi gorabehera. Amaia Iribarren, berriz, pasa den urtean hasi zen, Landiribar bezala, Amaiurren: "Joan den urtean nesketan gutxiago ginen, orain hamabost bat izanen gara gaztetxoak ere hasi baitira. Mutilak mantendu dira, hamar edo hamabi dira".

Konpromisoa

Giro ezin hobea izaten da, baina sufritzea ere tokatzen da. Konpromisoa altua izan behar du, Amaia Iribarren: "Ikasketak eta lana oztupo izaten dira". Izan ere, soka entrenatzera astean bitan joaten dira, beraien kasuan Auzatik Amaiurrera, eta, gainera, alde fisikoa ere norberak landu behar du. Lander Landiribar: "Korrika, tira eta tira tarteetan lasterrago errekupeatzeko, eta, gehien bat, hankak".

Mailak, gainera, taldearen pisuaren arabera izaten dira, Nafarroan eta mutiletan, adibidez, gehienez 640 eta 600 kilo pisatu dezake osotara taldeak, Lander Landiribar: "Batzuetan tokatzen da kide guztiek argaldu behar izatea", Amaia Iribarren: "Sufritzea" (barreak), Lander Landiribar: "Nik, denboraldian, hasiera eta bukaeraren artean, sei edo zortzi kiloko aldea izaten dut".

Teknika ere, zaila

Garrantzitsuena indarra dela eman dezake, baina sokatiran teknikak pisu handia du, Lander Landiribar: "Soka hartu eta tiratu besterik ez dela ematen du, baina konplexuagoa da. Garrantzitsua da soka gerrian sartzea, gerriaren hezur gainean paratzea, horrela, hori lortzen duzunean, eskuekin askoz indar gutxiago egin behar



Amaia Iribarren Iribar eta Lander Landiribar Goienetxe ▲



▲ Zortziko talde mistoa

duzu. Eskuekin gehienez minutu bat edo minutu t'erdi aguantatuko zenuke, horrela, tirada luzatu dezakezu". Amaia Iribarren: "Saiatu behar da indar guztia hankekin egiten, bestela besoak kargatu egiten dira, nekatu. Oso zaila da, nik oraindik ez diot guztiz hartu. Entrenamendu bakoitza ezberdina da, batzuetan sentsazio oso onarekin ateratzen zara eta beste batzuetan desastre izaten da. Soka mugitzen zaizulako edo ez duzulako bere tokian sartzen lortzen".

Zenbait aldaera

Sokatiran bi modalitate dira, goma gainekoa eta lur edo belar gainekoa, Amaia Iribarren: "Nafarroan ez da talderik belarrean aritzen denik". Lander Landiribar: "Lehen, aspaldi, Areso bazen.. Guk zapatila rekautxutatuak ibiltzen ditugu, ez irristatzeko. Lur gainean, askok, eskiatzeko botak erabiltzen dituzte, lurrean zuloak egiteko, orpoarekin joz. Tiratzeko modu oso ezberdina da, goma gainean atzera pauso txikiak ematen saiatzen zara. Nahiko konstantea izan behar zara. Eta lur gainean tiroi handiak ematen dituzte. Pauso luzeak eman behar dituzte, hanka atzekoak egindako zuloan sartzen saiatu behar dira".

Aldaerak, beraz, taldearen pisuaren eta lurraren arabera izaten dira. Baita taldearen tamainaren arabera ere. Ofizialak, lau eta zortziko taldeak dira. Eta, horrek ere, oso ezberdin egiten du lehia. Amaia Iribarren: "Taldea kontrolatzeko, adibidez, ezberdina da lau pertsonarekin edo zortzi pertsonarekin aritzea. Asko nabaritzen da". Lander

Landiribar: "Azkenean lau pertsona koordinatzea zortzi pertsona koordinatzea baino askoz errazagoa da. Baina, gero, aldi berean, askoz esplosiboagoa da lauokan aritzea. Eta, gainera, baten akatsak eragin handiagoa du, azkenean taldearen laurdenak huts egitea baita. Zortzikoetan lehia luzeagoa izaten da, bat okertzen bada besteek orekatzen dutelako".

Lander Landiribar Goienetxe, 31:

2010ean hasi zen, Amaiurren.

Ondoren, Txantrean eta Lesakan.

Zortzi urtez aritu zen, orduan.

2021ean hasi zen berriro, Amaiurren.

Eskubaloian ere aritu izan da.

"Mundialean parte hartu nahi banuen ezin nintzen bi kirolatan aritu, araudiarengatik. Zalantzak nituen honezkero eta mundialak bultzatu zuen balantza". 2012ko mundialean izan zen, Perthen (Eskozia).

Amaia Iribarren Iribar, 26:

Herri kirolatan ibili zen txikitan, Larraintzarko eskolan.

Herriz herrikakoan aritzen ziren orduan.

Gero, ordea, ez du kirolik egin.

Pasa den urtean sokatira probatu zuen arte.

Entrenatzen bakarrik hasi zen lehenengo, eta, ondoren, txapelketetan.

"Aurten, lanarengatik, txapelketetan gutxiago aritzen naiz. Baina oso gustura aritzen naiz, gogoak ditut berriz ere lehiatzeko".

Urtero 3.000 kilometroko bidaia egiten duen hegaztia

Nire silueta estilizatuak eta nire tamaina handiak dotore egiten nau. Gauzak perspektibaz ikusten ditut, eta horregatik igotzen naiz 400 metroko altuerara. Bidaiatzea gustatzen zait. Urtero 3.000 kilometro egiten ditut, bataz beste. Oso jatuna naiz eta ezkurak asko gustatzen zaizkit. Zutik lokartzen naiz ura dagoen tokian. Norbait hurbiltzen bada, plisti-plasta entzuten dugu. Zeruan letrak sortzen ditugu, gurea V da. Badakizu nor naizen?

Kurrikoak noiz ikusten ditugu? Penintsulara urrian iristen dira, eta martxora arte egoten dira. Espainian 2018 eta 2019 artean egindako kurrikoen azken erroldaren arabera, Europa iparraldetik 241.530 ale negualdatzen dira. Europako kurrikoen populazioko hegazti negutarren % 65.

Baina, zehazki, non?

Extremadura da negua igarotzeko gune nagusia (123.295 kurriko). Ondoren, Aragoi dago, 46.889 kurrikoekin; Gaztela-Mantxak 34.121 ditu, eta Andaluziak 15.105, batez ere Kordoba iparraldeko dehesetan. Nafarroan 14.129 hegazti erroldatu ziren.

Zergatik aukeratzen dituzte leku horiek?

Bertan babesleku eta elikagai nahikoa aurki dezaketelako, eta neguan ugaltzen diren lekuetan askoz elikagai gutxiago baitago. Ezkurak baino ez ditu jaten ia, eta amaitzen direnean, uztaren ondoren lurrian geratzen diren zereal-aleak, baita erraboiak, lekaleak, zizareak, barraskiloak eta, batzuetan, ornodun txikiren bat ere bai.

Esaera zaharrak dioen bezala...

Kurri behera, gari-hazi; kurri gora, olo-hazi; erin zak baratzean azazi (= Grullas abajo, semilla de trigo; grullas arriba, simiente de avena; siembra en la huerta simiente de berza)

Paperezko mila kurriko

Eta, amaitzeko, antzinako kondaira japoniar batek agintzen du milaka paperezko kurriko egiten dituen edonork kurriko baten zati baten desioa jasoko duela, hala nola, bizitza luze bat edo gaixotasun batetik sendatzea. Agian horregatik, urtero mundu osoko jendeak paperezko kurrikoak egiten eta Hiroshimara bidaltzen ditu. Abuztuaren 6an, Bakearen Egunean, hiriko haurrek kurrikoak zintzilikatzen dituzte bakearen monumentuan.





Sadako Sasaki neskato japoniarra Hiroshiman bizi izan zen oso une txarrean, 1945eko abuztuaren 6ko bonbardaketaren garaian. Haren historia mundu osoan ezaguna da ospitalean egin zituen paper-kurriloiak esker. Mugak gainditu eta bakearen eta bizitza-luzeraren sinbolo bihurtu ziren.



Entzun Edurne Gerendiainen irratiko kolaborazioa
hemen

Edurne Gerendiainek Esan Erran irratian hilero egiten duen ingurumen kolaboraziotik ekarritako testua. Kolaborazio guztiak entzuteko:

amezti.eus/irratia/kolaborazioak

▲ Sasakoren oroigarria, kurriloz inguratua



Patxi Irurzun: “Umorea oso kontu serioa da”

Honetan, idazlea den liburuzainari, Patxi Irurtzunerik elkarrizketa egin diogu. *Once millones de ejemplares vendidos* argitaratu baitu. Txalapartak kaleratu duen ipuin bilduma da, eta berak kontatu dizkigu zehaztasunak.

• *Once millones de ejemplares vendidos*, izenburu berezia da...


Izenburuaz esango nuke, liburua ipuin-liburu bat denez, lehenengo ipuina azalean agertzen dela, izenburua bera dela. Sarkasmo bat da, jakina. Ni bezalako egile batentzat pentsaezina da, eskurazina, hainbeste ale saltzea (ezta erdia ere, bueno, ezta erdiaren erdiaren erdiaren erdia...). Era berean, sarkasmo bat da, merkataritza-teknika horiei guztiei buruzkoa, karkoa bezala funtzionatzen saiatzen direnak, hainbeste milaka ale salduta, hainbeste edizioa... askotan tranpatiak direnak, edo gezurra direnak. Eta beti ematen diote balioa kantitateari, kalitateari baino gehiago, izateari baino gehiago itxuratzeari. Milaka ale saltzeak ez du gehienetan kalitatearekin zerikusirik, ez du esan nahi liburu edo disko bat horregatik beste batzuk baino hobea denik, agian zerikusi handiagoa du liburu horrek atzean publizitate-kanpaina handi bat izan duelako. Bestalde, liburuaren ipuinetako batean hamaika milioi salduet buruzko aipamen bat ere badago. Ez da ezer originala ere, nik uste nuen baietz, baina Kutxi Romerok esan zidan Mojinok Eskozios taldeak “Más de ocho millones de discos vendidos” izeneko diskoa atera zutela. Izan ere, liburuaren izenburua “Ocho millones de ejemplares vendidos” zen hasieran, baina hori jakitean nire buruari esan nion: “Nik Mojinosek

baino hiru milioi gehiago”. Nahiz eta motz geratu nintzen, ikusi baitut hor beste liburu bat dagoela, “Hamar mila milioi ale salduta” izeneko, eta hori soberakin bat da, hau da, gizaki bakoitzak bere liburuetako bat dauka.

• Zer kontatu nahi izan duzu liburu honetan?

Antologia bat da. Nik betidanik idatzi ditut ipuinak edo istorio laburrak (horrela deitu behar diet askotan, jende askok pentsatzen duelako umendako ipuinak direla, ez okertzeko, gero agian umeek nire liburua irakurri gero, aurkituko dutelako extralutar drogatuta eta abar... Ez, helduentzako ipuinak dira).

Eta antologia honetan denetarik dago, 90eko hamarkadan idatzitako ipuinetatik aurren idatzi dudan ipuinetaraino. Badira, adibidez, ia klasiko txikiak diren kontakizun batzuk, irurzunologoei gogoratuko dituztenak, El cangrejo valiente edo Fambre bezalako ipuinak. Hau azkena sanferminetako ipuin bat da, non biloba batek sanferminetan gurrpil-aulkian hildako aitona paseatzen duen, entzierrora eramaten duen, txosnetara... Eta ipuin horiekin batera badira beste garai batzuetako batzuk ere, hala nola duela bospasei urte idatzi nuen ipuin bat, Ultrachef, telebistako sukaldaritza-lehiaketa batera doan lehiakide baten istorioa kontatzen duena. Edorta Lamoren errezetak dituen ipuin bat da, aurren Gastronomiako Euskadi Saria





eta Michelin izar bat jaso dituen chefarenak. Bere garaian izengoitiz argitaratu nuen ipuin hau, eta orain kaputxa edo maskara kendu dizkit. Eta badira pandemian zehar egunkarietan argitaratu nituen ipuin berriago batzuk ere, eta baita berriago bat ere, duela hilabete batzuetakoa, Me llaman Oso Panda izenburua duena eta talde baten historia kontatzen duena, Lendakaris Tuertos izenekoa (Lendakaris Muertos taldeari talde tributo bat da)... Eta beste ipuin gehiago, estilo horretan.

• Zer dute amonkomunean ipuin horiek guztiak?

Umorea, zalantzarik gabe. Hau ez da nire lehenengo ipuin-bilduma, beti idatzi ditut ipuinak, txikitatik, idazten hasi nintzenetik. Izan ere, 19 urte nituenean argitaratu nuen lehenengo gauza ipuin-bilduma bat izan zen, eta Palentzia Hiria Saria irabazi nuen. Horrek bultzada eta autoestimua eman zizkidan idazten jarraitzeko. Gero, beste liburu batzuk iritsi ziren, hala nola Ajuste de cuentas, La tristeza de las tiendas de pelucas.... Eta, normalean, bilduma horiekin, hiru edo bost urtean zehar idatzitako ipuinak onenak iruditzen zitzaizkidanak biltzen edo hautatzen nituen, kontuan hartu gabe ea haien artean nolabaiteko harremanik ba

ote zegoen; hau da, bilduma horietan ipuin serioak ganberroagoekin elkartzen ziren, eta irizpide kronologiko bat baino ez zegoen. Baina oraingo honetan nahi izan dut haiek guztiak elkarren artean ondo konpontzen ziren ipuinak izatea, hari beraren bidez, eta hari hori umorea izan da: ipuin guztiek esperpento-tonua dute, ganberro samarrak dira, edo tragikomikoak...

• Zuretzat zergatik da hain inportantea umorea?

Ez dakit zergatik baina literaturan umorea gutxietsita dago, ez dut seriotzat hartzen. Baina nire ustez denok nahi dugu barre-egin, ondo pasatu, zorionak izan... Zer da inportanteago bizitzan? Umorea, beraz, oso kontu serioa da, nahiz eta kontraesankorra iruditu. Beste alde batetik, niretzat oso tresna aproposa da hainbat gauzetaz -arazo sozialak, politika, eta abar- hitz egiteko, beste modu batean, baimena edo "bula" rekin... Nik beti konparatzen dut bentrilokuo batekin, edo, hobe esanda, bere panpinarekin, panpinak esan ahal dituelako bentrilokuari onartuko ez litzaizkiokeen astakeriak... Adibidez, liburu honetan, umorearen bidez nik ikuskizunaren edo simulakroaren gizarteari buruz idazten dut, bakardeari buruz, bigarren

aukerei buruz...

• Ilustrazioetarako beste egile batzuekin elkarlanean aritu zara, ezta?

Egia esan, Txalaparta argitaletxeak ipuinak idazle nafarren ilustrazioekin agertzeko aukera eskaini zidanean, ahoan gozoki bat jarri balidate bezala izan zen. Nik txikitik marrazten nuen, komikiak egiten nituen, baina ez nintzen marrazkilari ona; beraz, beti miretsi ditut ilustratzaileak, komikilariak, eta jarraitu egin diet. Eta hemen suertatu zait nire ipuinak Oroz, Belatz, Pedro eta Alicia Osés, Liébana Goñi eta Simónides bezalako egileekin batera etortzea. Batzuk lehendik ere ezagutzen nituen, haiekin lan egin nuelako, Belatz, Pedro Osés, Beatriz Menéndez, Exprai, Tasio, beste batzuekin zerbait egiteko gogo handia nuen, hala nola Oroz edo Simónides, euskal komikigintzako historiko bat, edo Andrea Ganuza, Liébana Goñi... Gozamina izan da liburuan egotea, eta orain gainera esan dezaket, hamaika milioi ale salduz gero, idazle ilustratua naizela.

• Egile oso prolificoa zara, ba al duzu zerbait esku tartean?

Berriki bukatu nuen beste eleberri bat, liburu honen ipuin baten haritik tiraka, hain zuzen ere, nobela futurista bat da, Iruñean kokatua, non hiri osoa da sanfermineen inguruko parke tematiko bat eta marzianoak eta gizakiak elkarrekin bizi diren... Baina momentuz utzi nahi dut pixka batean kaxoian... Horretaz aparte aurtan nahiko nuke Los Taponos taldeari buruzko nobeleen hirugarren parte idaztea, Tratado de ortografía eta Chucherías Herodes liburuaren ondoren... Baina ez dakit, batzutan hobe da planak ez egitea, gero gurutzaten direlako beste ideiak edo egitasmo batzuk... Hori bai, segur aski urtean zehar ipuinaren bat idatziko dut.

2022ko azaroa

2022ko azaroan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

IMOTZ Oskotz

Oihan Iriarte Fernández, **Eskoletxean** jaio zen azaroaren 14an, Dani eta Raquelen semea.

“ Zorionak gurasoei ”



▲ Gurasoak, Hendaia eta Oihan ttikiarekin

Ezkontzak:

Guk dakigula ezkontza bat izan da, baina baimena eta datuak ezin izan ditugu erdietsi.

Heriotzak:

BASABURUA Igoa

Jose Maria Urritza Matxain, **Martiñeneko** nagusia, azaroaren 18an hil zen, 92 urtetan.



▲ Jose Maria Urritza


IMOTZ Etxaleku

Mariano Astitz Landiribar, **Marimigeleneko** nagusia, Cortesen hil zen, arazoaren 19an, 71 urtetan.



▲ Mariano Astitz

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”



22/23 Zozketa

Lehenik eskualdeko ostatu guziei gure esker ona,
zozketa saltzen eman diguzuen laguntzagatik

Ondoren, hona hemen beren produktuekin lagundu diguten guztiak:

Fabrikak

Bel
Postres Tradiciones Ultzama
Goshua
Lacturale
Gaztandegia Dorrea
Aurum Cosmetic

Ile apaindiak

Auzako ile apaindegia: Elena Beratsain
Arrarasko Josune Ripalda
Olagueko Maialen Etxenike

Eztiak

Elsoko Ezkurdi
Arantxa Puignau
Joxe Manuel

Bazkariak eman dizkiguten ostatuak

Ultzamako benta
Larrintzarko ostatua
Lanzko ostatua
Berueteko ostatua
Udabeko benta
Izarpe kanpin denda
Iraizozko ostatua

Sagardotegiak

Behetxonea: sagardoa
Txasenea: eltzaurrak

Erosketa bonoak

Behiko harategia (Auza) 40 euro
Apeztegiberria (Jauntsarats) 20 euro

Landa-etxeak

Flor de Vida (Lizaso)
Kaaño (Arrarats)

Arté lanak:

Angel Beuntza
Pello Kañamares
Pako Orbegoza
Ana Urteaga
Martin Mariezkurrena

Behorretan ikastarotxoak:

Igoako Bengoetxeko borda

Besterik:

Mentxu Pikabea, Ilarregikoa: tartak
Xabi Iturriotz, zapataria, Eraso: zapata pare bat.
Ezkurdi, Eltsokoa: Erle museorako bi sarrera

ZBKIA	IZENA	EZAUGARRIA	NORK EMANA	ZBK1 SARITUA	IZENA	ABIZENA1	HERRIA
1	Saskittoa	1 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	2201	Maite	Ezkurra	Burlata
2	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	1058	Alvaro	Morrondo	Urritzola
3	Saskittoa	2 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	2557	Nerea	Bandres	Zangoza
4	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	4102	Iñaki	Maritorea	Auza
5	Saskittoa	3 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	11750	Kontxi	Diez de Ultzurrin	Eltso
6	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	1764	Loli	Azpilikueta	Erripagaina
7	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Anje Bizirik	Ametzak	1054	Maximo	Landiribar	Urritzola
8	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Migelen benta	Ametzak	395	Juan Angel	Beraza	Irañeta
9	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	7189	Mikel	Orotz	Iruñea
10	Tarta	Mentxu-Ilarregi	Mentxu-Ilarregi	7101	Joseba	Conpains	Iruñea
11	Landa-etxerako bonoa	Flor de vida	Flor de vida-k	9975	Martin	Mariekurrena	Atarrabia
12	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	11488	Miren	Azkarate	Muruzabal
13	Saskittoa	4 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	9586	M. Carmen	Urritza	Burlata
14	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	2948	Jose Mari	Jaunarena	Erbiti
15	Saskittoa	5 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	2335	Joxe	Souto	Eltzaburu
16	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	932	Maider	Iriarte	Atarrabia
17	Saskittoa	31 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	438	Elene	Mujika	Orendain
18	Erle museorako sarrerak	Eltsoko museoak 4 lagunendako	Eltsoko museoak	7602	Irati	Iparragirre	Leitza
19	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	466	Enara	Mujika	Orendain
20	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Orgi ostatua	Ametzak	2980	Mikel	Jaunarena	Erbiti
21	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	10558	Unai	Urritza	Latasa
22	Tarta	Mentxu-Ilarregi	Mentxu-Ilarregi	971	Esteban	Gota	Burlata
23	Landa etxerako bonoa	Kaño-Arrarats	Kaño	4663	Jesus	Alkasena	Gartziriain
24	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	464	Enara	Mujika	Orendain
25	Saskittoa	6 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	8141	Etxalekuko	Ostatua	Etxaleku
26	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	6949	Pili	Indakoetxea	Beruete
27	Saskittoa	7 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	1905	Pako	Beloki	Etxaleku
28	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	11623	Patxi	Berrade	Iruñea
29	Saskittoa	8 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	10250	Iñaki	Ezkurra	Urritzola
30	Ezagutu gure behorrak	Igoa-Bengotxeko borda	Igoa-Bengotxeko bordak	11643	Alfredo	Irisarri	Iruñea
31	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	6289	Loli	Lakuntza	Oskotz
32	10€ko erosketa bonoa	Apeztegi berrian	Apeztegi berriak	8271	Iñaki	Iturralde	Goldaratz
33	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Iraizozko ostatua	Ametzak	11580	Ander	Marino	Zarrantz
34	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	6248	Candido	Ziganda	Oskotz
35	Ezagutu gure behorrak	Igoa-Bengotxeko borda	Igoa-Bengotxeko bordak	11833	Antonio	Ramirez	Iruñea
36	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	623	Jose Mª	Ibero	Ziganda
37	Saskittoa	9 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	4605	Mertxe	Txasko	Gasteiz
38	Esku-lana	Angel Beunza	Angel Beunzak	8244	Leire	Elkano	Gartzaron
39	Saskittoa	10 zenbaki duna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	10263	Carlos	Abrio	Hondarribia
40	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	871	Carolina	Ruiz	Leon
41	Saskittoa	11 zenbakiduna	Lacturale,Belisa,Dorrea,Behetxonea,Joxe Manuel, Arantxa,Isabel,Loperena,Itziar,eta Ametzak	6373	Doris	Mendia	Etxaleku
42	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	8557	Nati	Urritza	Itsaso
43	Ile apaindegiko produktuak	Josune-Arrarats	Josunek	6116	Jose Antonio	Garbisu	Muskitz

ZBKIA	IZENA	EZAUGARRIA	NORK EMANA	ZBKI SARITUA	IZENA	ABIZENA1	HERRIA
44	Esku-lana	Pello Kañamares	Pello Kañamaresek	1510	Joxe Antonio	Arangoa	Beruate
45	10€ko erosketa bonoa	Apeztegi berria	Apeztegi berriak	10132	Asunta	Villanueva	Erripagaina
46	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Gerendiaingo ostatuan	Ametzak	9977	Martin	Mariekurrena	Atarrabia
47	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	11686	Maritxu	Larretxea	Arantzaz
48	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	8564	Javier	Auza	Itsaso
49	Saskittoa	12 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	6163	Marian	Iribarren	Oskotz
50	Esku-lana	Ana Urteaga	Ana Urteagak	4053	Luze	Elosegi	Leitza
51	Saskittoa	13 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	1456	Miguel	Iraizotz	Zenotz
52	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	9422	Loli	Otxotorena	Atarrabia
53	Saskittoa	14 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	9366	Antonio	Ziganda	Larraitzar
54	Ile-apaindegiko bonoa	Elena-Auza	Elenak	1296	Unai	Ezkurra	Urritzola
55	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	3632	Clari	Otxandorena	Elizondo
56	20€ko erosketa bonoa	Auzako haragitegia	Auzako haragitegiak	442	Enara	Mujika	Orendain
57	Esneki sorta	Postres Tradicionales Ultzama	U. Postres Tradicionalesek	11974	Feli	Aleman	Iruñea
58	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	5812	Angel Mari	Mariñelarena	Aritz
59	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Aitona	Ametzak	11784	Patxi	Orotz	Atarrabia
60	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	8890	Encarna	Martikorena	Igoa
61	Saskittoa	15 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	2683	Mª Jesus	Arano	Aizarotz
62	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Aizarozko ostata	Ametzak	1057	Alvaro	Morondo	Urritzola
63	Saskittoa	16 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	6060	Alfredo	Altzueta	Muskitz
64	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Etxalekuko ostata	Ametzak	1711	Olaia	Zabaleta	Urritzola
65	Saskittoa	17 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	11180	Fermin	Urdanitz	Gaskue
66	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	7680	Maitane	Saralegi	Leitza
67	Esneki sorta	Postres Tradicionales Ultzama	U. Postres Tradicionalesek	9497	Harritxu	Oskaritz	Iruñea
68	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	7881	Eduarne	Arangoa	Jauntsarats
69	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Juan Simonen benta	Ametzak	2621	Mª Jesus	Arano	Aizarotz
70	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	11713	Rosa	Pikabea	Eltso
71	20€ko erosketa bonoa	Auzako harateegia	Auzako harategiak	11179	Fermin	Urdanoz	Gaskue
72	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	1714	Olaia	Zabaleta	Urritzola
73	Saskittoa	18 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	8825	Maribel	Orotz	Ola
74	Ile-apaindegiko bonoa	Maialen-Olague	Maialen Etxenikak	8142	Etxalekuko	Ostata	Etxaleku
75	Saskittoa	20 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	8222	Gurutze	Beuntza	Atarrabia
76	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Eltzaburuko ostata	Ametzak	11696	Arantxa	Martinez	Iraizotz
77	Saskittoa	21 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	5175	Jose Mª	Mariñelarena	Lantz
78	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	6273	Joana	Ziganda	Oskotz
79	Esneki sorta	Postres Tradicionales Ultzama	U. Postres Tradicionalesek	9224	Ana	Olaitz	Iraizotz
80	Bidaia bonoa	Asteburukoa	Ametzak	10122	Txaro	Villanueva	Iraizotz
81	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	9225	Ana	Olaitz	Iraizotz
82	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	9992	Martin	Mariekurrena	Atarrabia
83	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	11565	Mª Isabel	Zubiri	Gallipentzu
84	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	9953	Margari	Urritza	Lizaso
85	Saskittoa	22 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	3910	Miren	Barberia	Alkatz

ZBKIA	IZENA	EZAUGARRIA	NORK EMANA	ZBK1 SARITUA	IZENA	ABIZENA1	HERRIA
86	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Auzako ostatua	Ametzak	1531	Adur	Aleman	Etxaleku
87	Saskittoa	23 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	9362	Antonio	Ziganda	Larraitntzar
88	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Legarra-Goldaratz	Ametzak	9820	Juan	Maritorea	Berroeta
89	Saskittoa	24 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	7866	Mari Asun	Ziaurritz	Suarbe
90	Bidaia bonoa	Asteburukoa	Ametzak	2589	Amaia	Perez	Iruñea
91	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Alkozko ostatuan	Ametzak	10084	Pepe	Gelbentzu	Auza
92	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	2874	Ainhoa	Orotz	Igoa
93	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	822	Mª Luisa	Arano	Beruete
94	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	10450	Joxe Mari	Beratsain	Auza
95	Esneki sorta	Postres Tradicionales Ultzama	U. Postres Tradicionalesek	2973	Pilar	Iribarren	Erbiti
96	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	9998	Maddi	Gonzalez	Zizur
97	Saskittoa	25 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	6932	Soko	Peralta	Iruñea
98	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Orokietako ostatua	Orokietako ostatuak	2724	Aizeti Lierni	Murugarren	Aizarotz
99	Saskittoa	26 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	889	Martin	Buldain	Beruete
100	Esku-lana	Pako Orbegozo	Pako Orbegozok	9417	Javier	Zanduetza	Atarrabia
101	Saskittoa	27 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	9633	Maider	Barberena	Arraitz
102	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	362	Eneko	Beratsain	Auza
103	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Berueteko ostatua	Berueteko ostatuak	3720	Maider	Urtzelai	Lizaso
104	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	9728	Agedi	Artze	Larraitntzar
105	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	9373	Jose Angel	Ziganda	Larraitntzar
106	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Larraitntzarko ostatua	Larraitntzarko ostatuak	2365	Pello	Larraiortz	Eltzaburu
107	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	2521	Sofia	Cano	Iruñea
108	Zerri gizena	Edo 225 euroko balea	Ametzak	3732	Maider	Urtzelai	Lizaso
109	Saskittoa	28 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	11863	Leire	Iraizotz	Eltso
110	Idiazabal ardi gazta eskualdekoa	Insalas-Beruete	Ametzak	9160	Juan Ignacio	Alvarez	Olague
111	Saskittoa	29 zenbakiduna	Lacturale, Belisa, Dorrea, Behetxonea, Joxe Manuel, Arantxa, Isabel, Loperena, Itziar, eta Ametzak	157	Jokin	Berruete	Iruñea
112	Bainu-etxeko egonaldia	Elgorriaga	Ametzak	10502	Joxe	Etsain	Eltzaburu
114	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Udabeko benta	Udabeko bentak	4024	Moises	Gonzalez	Iruñea
115	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Lanzko ostatua	Lanzko ostatuak	6389	Isabel	Aleman	Etxaleku
116	Bainu-etxeko egonaldia	Elgorriaga	Ametzak	2698	Beñat	Alberro	Aizarotz
117	Erle museorako sarrerak	Eltsoke museo 4 lagunendako	Eltsoke museoak	10556	Igor	Urritza	Latasa
118	Latxa motako axuri ederra	Esnekoa	Ametzak	9198	Simon	Iraizotz	Gorrontz
119	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Arostegiko kanpina	Izarpe kanpinak	11497	Koldo	Arriaga	Tafalla
120	Zerri gizena	Edo 225euroko balea	Ametzak	4612	Roberto	Sarasa	Untzu
121	Bidaia bonoa	Asteburukoa	Ametzak	8007	Elisa	Azkarate	Antiguo
122	Esku-lana	Martin Mariezkurrena	Martin Mariezkurrenak	5708	Antonio	Senotsiain	Olague
123	Bazkari bonoa, bi lagunendako	Ultzamako benta	Ultzamako bentak	3616	Juli	Otxandorena	Almandoz
124	Bainu-etxeko egonaldia	Elgorriaga	Ametzak	1669	Martin	Osinaga	Ihaben
125	Izarpe kanpinean gau bat	Izarpe kanpina	Ametzak	8639	Juan	Vera	Zizur
126	Zapata pareak	Xabier Iturriotz	Xabier Iturriotzek	3935	Amaia	Oiartzun	Alkotz
124	Bainu-etxeko egonaldia	Elgorriaga	Ametzak	1669	Martin	Osinaga	Ihaben
125	Izarpe kanpinean gau bat	Izarpe kanpina	Ametzak	8639	Juan	Vera	Zizur
126	Zapata pareak	Xabier Iturriotz	Xabier Iturriotzek	3935	Amaia	Oiartzun	Alkotz

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Esan Erran irratia,

25 urte Ultzama aldeko uhinak astintzen

1998-2023



Esan Erran
I R R A T I A

107.9 FM